

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Biblioteka sarean /08

ELKARRIZKETA
Maite Garcia, Psikologoa /09

LEINTZ GATZAGA
Erretratu zaharra /10

Futbol zelai inguruan

%71

Erdialdean

%30

Ludoteka inguruan

%61

Azoka inguruan

%18

EUSKARAREN ERABILERA KALEAN

DATU KEZKAGARRIAK EMAN DITU SEI ELKARTEAK

ORDENANTZA: ANIMALIEN GAINKO ARAUAK/4 • KIROLAK: SQUASH TXAPELKETA/6

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALZAINGOA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 22
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 23
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

OHARRAK

SANTA RITA EGUNA

Bihar, zapatua, Santa Rita eguna da, eta Aretxabaletako agustindar elkarteak ospatu egingo du. Bi meza izango dituzte, 11:00etan eta 18:00etan.

DEGABEL ELKARTEAK BATZAR OROKORRA

Debagoieneko abeltzainen elkarteak, Degabelek, urteko batzar orokorra egingo du domekan, hilak 23, Aretxabaletako kultur etxean. Lehenengo deialdia 11:30ean izango da eta bigarrena 12:00etan.


'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'

Hilaren 28an, 22:30ean, eskainiko du Gorringo taldeak, kirol etxean. Sarrerak kultur etxean, kirol etxean, Gurean eta Arlutzen salgai.

ORAINDELA 9 URTE ARETXABALETAN

Langile bi hil ziren Coprecin izandako istripuan

Bi langile hil egin ziren Copreci lantegian 1995eko maiatzaren 20an. Hain zuzen ere, makina bat konpontzen zebiltzan, eta hura gainera erori zitzaien. Biak zendu ziren Arrasateko ospitalera heldu baino lehen. Bata 58 urteko arrasatearra zen eta bestea, berriz, aretxabaletarra.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lotsakizun"

Lotsatzeko motiboa.
—Familixandako
lotsakizuna da ori.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

Helduen literatura euskaraz

- 'Ugerra eta kedarra' / Sonia Gonzalez
- 'Buda zorionsuen etxea' / Joao Ubaldo Ribeiro
- 'MARIHUANAZKO bufandak'
- 'Erztunen jauna, . III, Erregearen itzulera' / J. R. R. Tolkien
- 'Hamar urte barru' / José Belmonte
- 'Airezko emakumeak' / Felipe Juaristi
- 'Tango urdina' / Aitziber Etxeberria
- 'Koadro isila' / Xabier Etxaniz
- 'Galtzontziloak autobusean zintzilik' / Aritz Gorrotategi
- 'Manila konexioa' / Jon Arretxe
- 'Behi eroak' / Patxi Iturregi
- 'Arratseko ahotsak' / Natalia Ginzburg
- 'Hiltzaile baten aitomena' / Joseph Roth
- 'Gertakizuna' / Annie Emaux
- 'Gerrako pilotu' / Antoine de Saint Exupéry
- 'Ararat mendiaren sumina' / Yasar Kemal
- 'Atzo' / Agota Kristof
- 'Hodei berdeak' / Jon Alonso
- 'Bizia lo' / Jokin Muñoz

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Asier Ortiz de Mendibil
10ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Andoni Romero
11n. Zorionak eta muxu bat! Fuentsanta eta Mari Carmen ahizpak.



ARETXABALETA
Asier Bengoa
14an, 13 urte. Zorionak, Pipi, eta muxu mordoak! Koadrilako neskek.



ARETXABALETA
Iker Romero
18an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, izeba Fuen ama pontekoaren partetik.




ARETXABALETA
Amaia Martinez
19an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Marian Agiriano
19an. Zorionak eta urte askotarako! Josu, Asier eta Aritz.



ESKORIATZA
Alexander Sanchez
20an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Julen Urreta
22an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Xabier Perez
22an, urtebete. Zorionak eta muxu bat, Ikerren eta gurasoen partetik.




ARETXABALETA
Enaitz Garai
23an, urtebete. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ander Mendikute
23an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Saioa Elorduizapatarietxe
25ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Igor Romero
27an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Fuen eta Mari Carmen izebak.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

ANDRA MARI

Aholkularitza

Fiskala


Kontablea

Juridiko/laborala

2003ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

ATREBENTZIAEZPADA/ Jarraituko dozu zapatuen Espānako printzearen ezkontza telebistan?




JOSE ANTONIO ZANGITU
Langillie

Ezta pentsau be ez. Partidue dauket Villabonan eta atsaldien jarteko eskatu dutziet ez ikusteko. Ni ez naz monarkikue, eta gaiñera, hori ezkontzioi txorrada haundi bat pentsetan jat.



RESU ARETXAGA
Jubilaue

Etxien baldin banau telebisñue jarritte eukiko dot. Jentien erropak ikusi gure dittut, horreik espānolok zela doiezen ikusi parien toketan bajat. Hala eta be gurau dot eguzkixe hartzie.




JOSE LUIS ARRATIBEL
Langillie

Ez, ez naz egongo etxien eta ez dauket bape interesik. Hala eta be gure edo gure ez ikusi biherko dou, leku guztixetan jarriko duskue eta. Oin arte emun dauena be ikusi egin biher.




ARANTXA SANTAMARIA
Langillie

Denporie baldin badauket bai, telebisñue jarriko dot, eta ondo etorten bajat ikusi. Dana dala oin arte emundekue ez dot bape jarraitu, zaping egin dotenien zeozer ikusi dot, baiñe besteik ez.



ENRIQUE CABALLE
Langillie

Ez, ez dot ikusiko telebisñorik be ez dauket etxien, hortaz, bapez. Ez dauket bape interesik, gaiñera, eta oin arte esandakuek be ez dittut jarraitu ez aldizkarixetan, ez egunkarixetan.



ANA RAMOS
Langillie

Ez dakit, baiñe ez dot uste; neurie izen zan inportantie. Atsalde dana behintzet ez naz ezkontzie ikusten egongo, eta pelikula ona baldin badau beste kateren batien haxe jarriko dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOAK ESPALOIETAN Gero eta arazo handiagoa daukagu gure herrian aparkalekuekin. Sarritan, baina, etxeo atariraino joan gura izaten dugu autoan, eta gero ez dugu jakiten automobila non utzi. Horixe gertatzen da Belorrieta auzoko kale estu honetan. Batzuek espaloi gainean uzten dituzte autoak eta beste batzuek errepidean, baina marra larua dagoen lekuan. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Animalien ordenantza

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza egin eta onartu du Udalak.

ASTEAN BEHIN /05

Euskararen erabilera

Euskararen kale erabilera neurtu zuen azaroan SEI elkarteak. Orduan jasotako emaitzak eman ditu.

KIROLAK /06

Squash Txapelketa

Hamar lagunek hasi dute Squash Txapelketa, eta haien artean hiru aretxabaletar daude.

ASTEKODATUA

7

LAGUN JOAN ZIREN MUGARRIAK IKUSTERA

Udalbatzak ohitura dauka Ojala Zelai egunean inguruko auzoetako mugarrak ikusi eta gero bazkaria egiteko. Aurten, alkattea, hiru zinegotzi, auzo alkate bi eta Udaleko idazkaria izan ziren.

BESTE EKESANA

“Plazak utzita ere, sekula ez dut utzi bertsolaritzaren mundua. Bertsozaleen Elkartearekin

kolaboratzen ibili naiz, batik batik txapelketetako epaimahaiakide bezala, ikerketatxo batzuk ere egin ditut, bertso saioetako aurkezle ere ibili naiz...

Garai haiek bizi izan nituenean, gazte-umeak ginen, eskolako lagun talde bat ibiltzen ginen, eta jolas moduan gohiago hartzen genuen. Orduan, neu behintzat, ez nintzen berritzaile sentitzen, ez nintzen horretaz jabetzen.

Txapelketetan hasi nintzenean, konturatu nintzen emakume bat mundu horretan ikusteak harridura eragin ziola askori, baina orduan ere ez nuen bide berri bat urratzen ari nintzelako sentsaziorik.

ARANTZAZU LOIDI
'Berria' /04-07-12

HERRITARREN BERBAK/ Irati Pagoaga



*Eitteko prest?
Ba jarraitu!!*

Zapatuen lepo entzun geuen lematxue izen zan, baine ez daixela geratu hortan.

Hamendik ezkinatik Loramendi elkarteko lagunak zoriondu gure dittut hau egunau antolaketan buru belarri ibili dielako, beste gainontzeko danak be ahaztu barik. Batukadakuek be fin ibili zien, asko gustau jaten jarri euien girue. Hamendik aurrera kompetentzia egongo da!!

Aurreko astien Aretxabaletako kale erabileran neurketak aurkeztu zien, eta emaitzak txarrak izen die. Euskerien erabileriek behera ein dau. Ez naz hemen zifrak eta datuek aurkezten ekingo, baine alarma gorrixe ixotu biherrien gazela gogoratu eragitie gureko neuke. Ez dakit ze pasetan dan, ume eta gazte danak ikesten daue D eredu eta hala eta be behera! Sarriten entzuten da eskolak ez dauela nahikue eiten, hori egixe da, hortaz

danok daukou hemen zeozetan lagundu biherria eta geure partetik zeozer jarri biherria.

Harixei jarraitute, datorren ekainien bostien manifestazinue egongo da Iruñan Kontseiluek antolatute. Badakitzue,

“Ez dakit ze pasetan dan euskeriekin, gazte danak ikesten daue D eredu eta hala eta be behera!”

apuntau agendan ez ahazketako eta Iruña bihurtu daixela fan zan zapatuen Aretxabaleta izen zana.

Gaixe alde batera itxite, Atxabaltako Gazte Ekimena ezin aitatu barik itxi.

Nunbait astero

elkarketan hasi die, eta lanerako inkeruaz daz herriko gaztiek. Kantoitxotik hasiera ona opa dutzet talde barrixei, animo! Beti marmarrien ibili biherrien alkartu eta gauzak antolaketan hasteko ordue zan, eta ondio gerturetu ez danak atiek zabalik topauko ditu. Hasierie behintzet emun dutzie, eta oin buruei buelta batzuk emun besterik ez dau, gogue sobra dau eta. Aurrera AGE!!!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:





M. J. Aretxaga

Jolasak eta jokuek

Aste bukaera edarra pasau geuen fan zan astien. Lelengo Euskararen Eguna Loramendiren eskutik, eta gero Ojala Zelai kirol eta kultura saillek antolatute. Umiek jolasak euki euien eta nagusiek jai girue. Egualdixek be lagundu euskun eta ezin keja. Zapatu gabien pasautekuek, oster, ez dauko izenik. Euskararen Egunek jentie ekarri euen herrire aspaldiko partez, baiñe bixamonien halako txikizuek egittie be... Jolasien ebitzela pentsauko euen baten batek, baiñe herrittarrak hasarre dabitz.

Jai kontuekin jarraitu gureko nauke; izen be, hille hontako *Gaztetxulo* aldizkarixek Aretxabale-tako kontuek dakar: San Kanuto, tabernak... Herriko gau giruen gainien egitten dau berba, eta Orly tabernan lan egiten dauen Ugutzi be egin dutzie galderatxo batzuk.

Jokuekin jarraituko dou; txoritxo batek esan dust hamar herrittarrek ETBko lehiaketa batien hartuko dauiele parte. Antza danez herri artien jokatu biherko daue -Bizkaiko herriren bat tokau ei jake aretxabale-tarrei- eta kulturaren eta kirolaren gaineko galderak eta probak izengo dittue. Parte hartu biher dauen baten izena be emun dustie baiñe ez noie ni gauzak aurreraketan.

UDAL ORDENANTZA/ Arauen, jabeen betebeharren eta bete ezean jarriko dituzten isunen berri ematen du ordenantzak

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzari behin-behineko onarpena eman diote

MIRARI ALTUBE

Joan zen astean udalbatzak egin zuen ohiko osoko bilkuran aurkeztu zuten animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza. Behin-behineko onarpena eman zioten orduan, eta orain, ikusgai egongo da, alegazioak aurkezteko.

Martxo inguruan bandoa jarri zuen Udalak, txakurrek herrian sortzen zituzten arazoak konpontzeko asmoarekin. Orain, ordenantza egin du, eta laster indarrean egongo da.

BANDOA-ETA ORDENANTZA

Gero eta animalia gehiago dituztela herritarrek ikusita, batez ere txakurrak, arau batzuen beharra zegoela ikusi zuen Udaleko Herri Antolamendu eta Segurtasun Sailak. Hala, bandoa atera zuen lehenengo eta orain ordenantza egin du.

Era guztietako animaliak edukitzea arautuko du ordenantzak. Era berean, animaliekin izan beharreko gutxieneko arreta aholkatuko du, eta aipatutako arauok bete ezean zigortzeko erabiliko duten prozedura zehaztuko du. Ordenantza, gainera, indarrean jartzen dutenean Aretxa-



ARTXIBOA

Gero eta kezka handiagoa dute herritarrek txakurrak hezteko eta leku publikoetan ibiltzeko moduarekin.

baletako esparru guztietara zabalduko dute.

ARAUAK ETA ZIGORRAK

Animalien arteko bereizketa egingo du ordenantzak, eta bereziki

etxeko txakurren eta katuen gaineko arauak jasoko ditu. Leku publikoetan zela ibili behar duten animalioek ere zehaztuko du. Bukatzeko, zigortzeko prozedura jasoko du, hau da, arau haustek

eginez gero zer gertatuko den eta ezarriko dituzten isunak. Zigorren ardura herriko udaltzainen eskuetan geratuko da, eta eurek bideratuko dituzte arau haustek eta kexak.

HZ eta Europako hauteskundeak izan zituzten berbagai

M.A.

Herritarren Zerrenda zer den eta nortzuek osatzen duten eta Europako hauteskundeek duten garrantzia azaltzeko hitzaldia egin zuten martitzenean. Imanol Iparragirre etorri zen azalpenak ematera, eta 25 bat lagun elkartu ziren udal-etxeko ganbaran.

Zazpi herrialdeetako euskaldunek osatutako zerrenda dela Herritarren Zerrenda azaldu zuen

Iparra-k; gazte mugimendu, sindikatu, kultura mundu eta beste hainbat ingurutatik etorritako ezkerzale eta abertzaleek osatutako zerrenda. Azken asteotan, gainera, babesa ematen dion 50.000 sinadura batu ditu HZk.

Globalizazioaren munduan sartuta Europar erabakiko den guztiak izango duela guregan eragina aipatu zuen; hortaz, Europako Konstituzioa abian jartzen dutenean garrantzitsua izango da euskaldunok ere ordezkari izatea bertan.



M.A.

Herritarren Zerrenda aurkezteko hitzaldia egin zuen *Iparra-k* martitzenean.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43

EUSKARA/ Adin tarte guztietan jaitzi da euskararen kaleko erabilera; gehien adinekoetan (25 puntu) eta haurretan (18)

SEI kultur elkarteak egindako kale neurketaren arabera, ia %43k egiten dute euskaraz kalean

MIRARI ALTUBE

SEI kultur elkarteak euskararen kale erabileraren gaineko neurketa egin zuen azaroan. Orduan jasotako datuen emaitzak eman dituzte orain, eta horien arabera Aretxabaletan %43k egiten dute euskaraz kalean. 2001 eta 2003 artean 12 puntu jaitzi da erabilera.

Azaroan egin zuen kale neurketa SEI kultur elkarteak, Udaleko Euskara Sailak aginduta. Zazpi garren kale neurketa izan da.

EZ DA %43RA HELTZEN

Herritarrek kalean euskaraz egiten duten edo ez neurtu zuten SEIko bi kidek. Behaketa zuzen bidez egin zuten, hau da, 5 egunetan 2 orduz kalean gora eta behera ibilita. Sexua, adin tarte eta zona bereiztu zituzten, gainera.

Azterketa egin zutenean, 6.018 biztanle zituen Aretxabaletak eta 2.899 hiztun neurtu zituzten, hau da, %48. Jasotako emaitzen arabera, kalean euskaraz egiten duten herritarren kopurua ez da %43ra heltzen. 1989an egin zuten lehen kale neurketa Aretxabaletan, eta 1989tik 2001era bitartean gora egin zuen euskararen erabilera. 2001etik 2003ra bitartean, ostera, jaitzi egin da, 12 puntu jaitzi ere.

ZONA ETA ADINA

Azterketa egiteko herriko hainbat leku aukeratu zituzten. Gauzak horrela, euskara gehien erabiltzen duten tokiak dira ludoteka ingurua (%61) eta futbol zelai ingurua (%71). Egubakoitz gaueko giroa ere neurtu zuten plaza inguruan, eta 2001etik hona %60ri eutsi diola frogatu zuten. Eta euskara gutxien erabiltzen duten zonak, berriz, honakoak dira: erdialdea (%30) eta azoka (%18).



Azaroan egin zuen SEI elkarteak kale neurketa, eta orain, euskararen kale erabileraren emaitzen berri eman du.

2001etik 2003ra bitartean jaitzi egin da euskararen kaleko erabilera, 12 puntu jaitzi ere

Adin taldeak ere aztertu zituen SEIek, eta zera ikusi zuten: haurrek eta gazteek euskara gehiago erabiltzen dutela (%58), helduek eta nagusiek baino (%33). Gazteen erabilera herrikoaren gainetik dago, hortaz, itxaropentsua da hori; hala ere, 2003an egindako neurketa horretan jai-

Euskara gehien erabiltzen duten tokiak ludoteka eta futbol zelai inguruak dira

tsi egin da erabilera adin tarte guztietan: haurretan, esaterako, 18 puntu eta adinekoetan 25.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskararen ezagutzaren gaineko datuak ere eman zituen SEI elkarteak, nahiz eta hori ez aztertu eurek. Datu horien arabera, eus-

Azken 5 urteotan lau puntu jaitzi da euskararen ezagutza maila

karaz dakitenak %65 dira Aretxabaletan, ia dakitenak %17 eta erdaldunak %18. Kezka sortu duten datuak haurren gainekoak izan ziren; izan ere, azken 5 urteotan lau puntu jaitzi da haurretan euskararen ezagutza maila.

Datuak esku artean, hausnarketa egiteko garaia da orain.

LABUR

Txikizioak egin zituzten herrian domeka goizaldean

Euskararen Egunaren biharamunak zapore gazi-goza utzi zuen herrian; izan ere, domeka goizaldean hainbat kalte egin zituzten herrian: edukiontzia irauli, zuhaitzak atera, kaleko bankuak apurtu, komun publikoak izorratu eta zenbait automobilen ispiluak apurtu. Horrez gain, errepide erdian auto bat utzi zuten gurutzatuta, eta obretako materiala botata aurkitu zuten udaltzainek domeka goizean.

120 mila euro eman dizkio Foru Aldundiak Aretxabaletari

Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza eman dizkie Gipuzkoako herriei. Debagoienarako hamar milioi eurotik gora bideratu ditu, batez ere kirol eta kultura lanetarako. Aretxabaletaren kasuan, 120.000 euro jasoko ditu, eta herriko espaloiak konpontzeko izango dira. Eskoriatzak izan ezik, Debagoieneko herri guztiak jaso dituzte dirulaguntzak, eta Aretxabaleta izan da, hain zuzen, gutxien jaso duena.

Herriko lanak geldidaude eraikuntzaren greba dela-eta

Eraikuntzakoek greban jarraitzen dute, eta luzerako izan daitekeela diote, gainera. Herrian ere nabaritu dute greba hori; izan ere, lan guztiak geldidaude: Aralar eta Zeraia kaleetako saneamendu lanak, Beroa guneko etxebizitzak, Herriko Plazako eraikina, Arizmendi ikastolako gunea, eta beste batzuk.

Gizarte gaietako jardueren laguntzak arautuko dituzte

Gizarte zerbitzuetan lan egiten duten elkarteak Udalak ematen dizkien dirulaguntzak arautzeko lehenengo pausoak eman dituzte. Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailean aurkeztzen dira eskaerak eta hemendik aurrera laguntzak emateko irizpideak izango dituzte Udalean.

Bestalde, nazioarteko kooperaziorako lan egiten duten hainbat elkarte diru eskara egin dute dagoeneko. Udal aurrekontuetako ohiko sarreren 0,7 bideratzen dute horretarako; aurrean, 35.511 euro. Ezarritako irizpideen arabera banatuko dute diru hori.



Giro bikaina euskararen eta Otxala Zelai egunetan

Jai giroa izan zen nagusi joan zen asteburuan herrian, eta, eguraldia lagun, giro bikaina sortu zuten herritarrek bai Euskararen Egunean, bai Otxala Zelai egunetan. Euskara izan zen protagonista zapatuan: gazta dastatzea, jotak, batukada... Gazte zein nagusi, guztiak egin zioten omenaldia. Domekan, ostera, erromeria giroa izan zuten Otxala Zelain: animaliak, jokoak, dantzak... Ederto pasatu zuten gaztetxoek. /M.A.

SQUASHA


Hamar jokalarik hasi dute Squash Txapelketa; hiru aretxabaletarrak dira

Txapelketako finalerdiak ekainaren 16an jokatu dituzte eta finala 18an izango da

M.A.

Joan zen egubakoitzean hasi zuten Debagoieneko Kirol Zerbitzuak antolatutako Squash Txapelketa. Ibarreko hamar lagunek eman zuten izena, tartean hiru aretxabaletarrek, eta bi talde osatu dituzte. Ekain erdi inguruan bukatuko dute udaberriko txapelketa.

Joan zen astean hasi eta ekainaren 18ra arte iraungo du aurtengo Squash Txapelketa. Bost kidez osatutako talde bi egin dituzte, eta taldekideen artean jokatu dituzte lehenengo partiduak. Ekainaren 16an finalerdiak izango dira eta 18an, berriz, finala. Parte-hartzaileen artean, Aretxabaletako hiru jokalarik daude: Iban Dasilva, Iñaki Uribebarria eta Juan Antonio Varilla, hain zuzen ere.



ARTXIBO.

Hemendik eta ekainaren 18a arte asteburu guztietan jokatu dituzte partiduak.

Joan zen asteburuan partidu bi bakarrik jokatu zituzten. Hona emaitzak: Sergio Galdeanok Car-

los Abasolori irabazi zion (3-1), eta Alberto Ferreiro Haritz Gordori gailendu zitzaion (3-0).

Gazteak asko eta nagusiak antzera aurtengo Otala Zelaiko krosean

Jose Javier Cuadrado zaldibiarra izan da aurtengo senior mailako txapelduna

M.A.

Domekan egin zuten Otala Zelaiko 26. krosa. Gaztetxo asko hurreratu zen parte hartzera, inoiz baino gehiago; nagusien kasuan, ostera, partaidetzak ez zuen gora egin. Aurtun, gainera, ibilbide gogorragoa izan dute, kilometro bi luzeagoa izan delako.

Senior mailako gizonetakoek bi buelta eman zizkioten Urkuluri. Irabazlea Jose Javier Cuadrado zaldibiarra izan zen, eta 50 minutu eta 12 segundo behar izan zituen bukatzeko. Atzetik Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra eta Manu Hurtado beasaindarra heldu ziren. Lehenengo aretxabaletarra Juanma Martinez izan zen, 7. postuan.

Beteranoek buelta bakarria eman zuten eta txapelduna Zuma-



A.L.

Senior mailako gizonetako txapeldunak, trofeoak eskuan dituztela.

rragako Ricardo Velea izan zen; Asier Barrainkua aretxabaletarra 5. postuan sartu zen. Emakumezkoen kasuan, seniorretan Gas-

teizko Nieves Zarzak irabazi zuen, eta beteranoetan Marije Velasco arrasatearra; Lorea Barrutia aretxabaletarra 4. izan zen.

PILOTA

Galdakaoko pilotarien aurka jokatu dute zapatuan, Iturrigorri frontoian, Errasti anaiek

Aurrera doa Euskal Herri mailan antolatu duten Udaberri Pilota Txapelketa, eta zapatuan Galdakaoko pilotariak izango dituzte aurrez aurre Errasti anaiek, Iturrigorri frontoian. Aurreko astean ez zuten partidurik jokatu Sopelako aurka, eta Errasti anaiei eman zieten epaileek partidua. Zapatuko partiduaren ostean, Iruñeko Oberena II taldearen aurka jokatu beharko dute, eta emaitzen arabera finalerako sailka daitezke.

Debarroko Pilota Txapelketa ere aurrera doa, eta astean eskoriatzarren aurka jokatu dute. Oraindik beste bi partidu jokatu beharko dituzte lehenengo fasea bukatzeko.

FUTBOLA

Nesken taldeak festa egingo du hurrengo zapatuan denboraldi bukaera ospatzeko

Futbol denboraldia bukatzekotan daude talde gehientsuenak, eta nesken kasuan joan zen asteburuan bukatu zuten. Elgoibarren izan zuten partidua, eta 4-0 galtzea tokatu zitzaion. Hala ere oso denboraldi ona egin dute eta pozik daude aretxabaletarrak. Egingo denboraldia ospatzeko festa egingo dute hurrengo zapatuan, hilak 29; lehenengo gurasoen aurka partidua jokatu dute Apotzagan, eta gero bazkaria izango dute.

Datorren denboraldira begira aldaketa asko izango ditu taldeak, izan ere, neska asko kanpora doaz ikastera.

MENDIA

Ekainaren 13an egingo du Murruxiko MEK Aretxabaletako III. Mendi Martxa

Bi urtean behin antolatzen du Murruxiko Mendizale Elkarteak mendi ibilaldia, eta aurtun hirugarrena izango da. Ekainaren 13an egingo dute, domeka, eta dagoeneko hasita daude prestaketa lanak egiten. 28 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek, eta bide batzuk aldatu badituzte ere aurreko urteetako leku berberetatik pasatuko dira: Aretxabaleta, Urkulu, Urbaltz, Ugaztei, Degurixa, Alabita, Kurtzebarri, Mendiola eta Aretxabaleta. Irteera 07:30ean izango da Copreci lantegiko aparkalekutik, eta izena aurrez Murruxikoko lokalera joanda eman daiteke edo egunean bertan ibilaldia hasi aurretik.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Touring

Preferentea.

Domeka. 17:00. Ibarra.

UDA-Aurrera Ondarroa

Ohorezko gazteak.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Galdakoa

Seniorrak.

Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zestoa 0 UDA 3

Preferentea.

Euskaldunak 1 UDA 1

Ohorezko gazteak.

UDA 3 Lengokoak 4

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 2 Allerru 2

Lehenengo mailako kadeteak.

Beti Ona 1 UDA 1

Bigarren mailako kadeteak.

Aitzgorri 2 UDA 12

Ohorezko infantilak.

Elgoibar 4 Almen/UDA 0
Emakumezkoen kopa.

PILOTA

Debarroko Pilota Txapelketa.

Aretxab. 22-Antzuola 2

Seniorrak.

Udaberri Pilota Txapelketa.

Sopela 0-Aretxab. 22

Seniorrak.

Esko Sport
Zure konfidantzako denda
Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96
LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA


Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Jou Diaz

Karakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Aretz
taberna
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

HURRETIK



Ines Murillo

AKELARRE APAINKETA dendakue

Oin dala astebete zabaldu euen Inesek dendie. Aretxabaletan falta egitten euela ikusitte hartu euen erabakixe. Mondraguen dauko dendie oin dala hiru urtetik, baiñe badie 12 holako kontuetan hasi zala, nahiz eta betidanik margotzie gustau.

Mondraguen dauketzu dendie. Zeatik oin Aretxabaletara?
Oin dala hiru bat urte zabaldu neuen Mondragueko dendie. Han, saltziez gain, ikastaruek be emuten dittut. Jente asko etorten zan hamendik, eta beti bardiñe esaten euen: herrixen holako bat biher euela. Erabakixe hartu, eta zabalketie pentsau neuen.

Ze ofreziduten dau Akelarre dendiek?

Batez be, gaztiendako barruko dekoraziñue. Norberak pinttau biherreko altzarixek. Jentiei gustau egitten jako hori. Altzarixek gain, iturgin, arotz eta beste gremio batzuekin koordinante gauz.

Zeatik pinttau barik?

Etxie egitten gozatu eta poliki-poliki gure dozun moduen jarteko aukerie emuten dauelako.

Animetan dien danek bukaketan dittue lanak?

Ez. Nahiz eta aholkuek eta azalpenak emuten dittugun, askok ez dakixe bukaketan, edo ez daue uste bukatu leikienik. Ez dau arazorik. Altzarixe hartu eta guk bukaketan dou. Horrek animau egitten dau jentie dekoraziño modu hau probetan.

Biherrezkue da esperientzia eukittie?

Ez da derrigorrigorrezkue. Guk, ahal doun neurrixen, lagunketan ahaleginketan gare, eta neure ustez ez da aurretik brotxarik hartu biher derrigor.

Ze die garestixauek, halako altzarixek ala amaittutekuek?

Saltzen dittugun altzarixekin dirue aurrezten dala esango neuke, nahiz eta denpora eskaiñi biher jakon. Gaiñera, gaztiek ez daue dirue sobran eukitten, eta apurka-apurka ordaindu biher izeten daue. Akelarren, epeka ordainketako aukerie emuten dutzou, eta etxiez disfrutetako aukerie eukitten daue.

Zela dekorau dozu zeure etxie?

Beste altzarixek dittut gehixenbat, guztiz amaittute datozenak. Baiñe danak ez die holakuek: altzari batzuk, lanparak..., neuk egindakuek die. Gaiñera, umiek be lagundu dustie.

Ikastaroren bat egitteko aukerarik eukiko dou hamen?

Datorren eguakotxien, zaharberritze ikastarue egingo dou atsaldet. Debalde izengo da, eta kutxa edo ate bat ekarri biherko da. Izena maiatzan 28xe baiño lehenau emun biherko da.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA / Agurtzane Elkoro

Paris / 2004ko apirila

Pazko astean joan zen Agurtzane lagun batekin Parisera. Trena hartu eta Europaño hiririk erromantikoena ezagutzera joan ziren. Bost egun pasatu zituzten bertan. Ez zuten guztia ikusi, baina ikusitakoarekin oso gustura itzuli ziren etxera.

Eiffel dorrea, Garaipen-arkua, Eliseoko Zelaiak, Latindar auzoa, Notre Dame katedrala, margolarien plaza, Moulin Rouge... eta beste hainbat paraje ikusi zituzten. "Atentzioa eman zidaten kaleek", dio Agurtzane, "luzeak eta zabalak dira. Hiriaren estruktura, gainera, asimetrikoa da, hortaz, etxebizitza bati bira eman eta lehengo lekuan agertuko zarela uste baduzu, galduta zaude". Hala ere, oinez ikusi behar den hiria dela dio Agurtzane: "Metroan leku guztietara hel zaitezke, baina ez duzu hiria ikusiko, ezta hiriaren xarmaz gozatuko ere. Senna errekan ontzietan egiten duten ibilbidea ere oso polita da". Eraikin dotorez osatutako hiria da, gainera, Paris: "Harri landuz egindako eraikin eta etxe asko daude. Oso ondo zainduta ditzute eta horrek ikusgarriagoak egiten ditu".

Hiriaren aberastasuna eta luxua daude, bategatik, eta eskean ikusi zituzten hiritarrak, bestetik: "Biek ematen dute atentzioa, baina kurioso da eske-



"Metroan leku guztietara hel zaitezke, baina ez duzu hiriaren xarmaz gozatuko"

"Toki guztietan zeuden poliziak, eta leku batzuetan poltsak erakusteko eskatzen zuten"

an zebiltzanak zela joaten ziren metroaren berogailu alboetara gualdea heltzen zenean". Hiri handi askotan bezalaxe, han ere nabaritu zuten poliziaren presentzia: "Toki guztietan zeuden, metroan, trenean, eraikin batzuetako sarreretan... Eta leku batzuetan poltsak erakusteko ere eskatzen zuten; horrek atzerapenak besterik ez zigun eragiten turistoi".

Eurodisney ikusteko irrika ere bazuen Agurtzane, eta hantxe pasatu zuten egun bat: "Ondo ikusi gura baduzu ez da nahiko egun bateko bisita; hala ere, niretako nahikoa izan zen; diru gehiegi gastatu genuen, gainera". Umeendako gertatuta ei dago, baina nagusiek ere ondo pasa dezakete: "Hori bai, umetako espirituairekin joan behar da, konplexuak atzean utzi eta ondo pasatzera". Disneyk sortutako pertsonaien desfilea, ikuskizunak, jolasparkeak... "Etorikizunaren gaineko parkea, esaterako, oso ondo jarrita dago".


"Garestia da Paris; edozein museo edo eraikinetan sartze-ko ordaindu egin behar da eta euskal etxean bertan ere ondo ordaindu behar izan genuen hartutakoa, baina merezi du", dio Agurtzane. Hortaz, opor egun batzuk hartu gura dituenak badaki nora jo.

M.A.



Dotorea da Eiffel dorrea, baina gora igotzeko hiru ordu egon behar zen zain eta ez zen igo gora Agurtzane.


TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34


ITURGINTZA
Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Dorleta taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

J.J. IRURE
ITURGINTZA
URA GASA
KALEFAKZIOA
MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 21a / 167. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Biblioteka Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalean sartzeko lanean ari dira

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ezohiko osoko bilkura ospatu zuten Eskoriatzako udaletxean maiatzaren 10ean. Bertan, askotariko gaiak landu zituzten. Herriko biblioteka sarean sartu eta Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala osatzen lagunduko dutela adostu zuten, besteak beste.

Maiatzaren 10ean, alkate udalburuaren aginduz, ezohiko osoko bilkura egin zuten Eskoriatzako udaletxean. Bertañ, gai zerrenda luzea izan zuten aztergai.

BIBLIOTEKA SAREAN

Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala osatzen duten liburutegien *on line* proiektua abian jarri da, eta Eskoriatza gonbidatuta dago bertan parte hartzera. Gonbidapenari baiezkoa eman zioten. Hala, erabiltzaileei informazioa eskuratzeko erraztasuna ematea dute helburu. Proiektuaren arabera, liburutegi guztiek katalogo bera izango dute. Horrela, orain liburutegietan dauden katalogoak aldatu egingo dira, eta sistema berrira egokitu. Liburutegien arteko maileguak koor-

dinatu eta kudeatuko dituzte, bai EAEn, baita bertatik kanpo ere.

Herriko bibliotekan ere hori egin gura dute. Udalaren eta bibliotekaren artean banatuko dute lana, eta bi hilabeteen, erdia birkatalogatuta egotea espero da.

Egitasmoa gauzatzeak abantailak ekarriko dituela adierazi dute udal ordezkariak. Denbora eta baliabideak aurreztuko dizkie erabiltzaileei, eta bide batez, katalogazio bikoitza saihestuko da.

Liburutegiek jarraituko duten politika ere komuna izango da, besteak beste, katalogazioari, maileguei, zigorrei eta erreklamazioei dagokienez.

LANPOSTU BERRIAK ETA IBIAK

Hala ere, ez zen izan hilaren 10eko ezohiko osoko bilkuran landu zuten gai bakarra. Besteak beste, 2004ko lan eskaintza publikoa onartu zuten. Bi langile berri kontratazeko proposamena egin zen osoko bilkuren aretoan. Horietariko bat liburutegiko laguntzailearen figura sortzean datza. Hala ere, lehenengo argitaratu egin behar da; ondoren, lehiaketako arauak eta oinarriak zehaztu beharko dituzte. Udaletik adierazitakoaren arabera, datorren



Biblioteka eta gainerako liburutegien katalogazio bateratuarekin, erraztasunak eman nahi dizkiete erabiltzaileei.

hilabeteen zehar izena emateko aukera egongo da.

Bestalde, ibiei buruz ere mintzatu ziren. Eremu publikoaren erabilera pribatiboa edo aparte-

ko aprobetxamenduaren tasak arautu zituzten. Hala, ibiak erregulatzeko ordenantza berria adostu zuten udal ordezkariak. Orain arte, Eskoriatzako kaleetan dau-

den lur azpiko garajeek ez zuten ibirik behar, eta Udalaren erabakiz, horiek eskatu beharko dituzte. Horrela, egokitzen zaiona ordaindu beharko dute.



Hondakinez egindako lanak Almen gunean

Almen guneko 6. mailako ikasleek etxean sortutako hondakinekin hainbat eskultura egin, eta aurreko astean erakusketa egin zuten. Guztira hamasei eskultura egin zituzten 58 ikasleren artean. Askotariko materiala erabili zuten: arrautza poteak, sokak, papera eta kartoia, plastikozko ontziak... Agenda 21 programaren barruan antolatuta, birziklapenerako jarrera sendotzea izan dute helburu, eta ikasleek ederto pasa zutela adierazi dute.

LABUR

Bigarren geratu dira saskibaloitaldeko neskek

Eskoriatzako saskibaloitaldeko neskek Andraitz talde legazpiarrari 58-39 irabazi zioten. Expositok sartu zituen puntu gehien: 14. Gauzak horrela, bigarren postuan amaitu dute denboraldia senior mailako neskek. Gainera, lauko finala jokatzeko sailkatu dira; maiatzaren 29an eta 30ean izango da, Eskoriatzaren bertan. Lau talderen artean finalerdiak jokatu dituzte zapatuan, eta garaile irte ten direnek domekan izango dute azken partidua.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
IUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

URETAKO PUZGARRIAK
Domeka honetan, hilak 23, ume, gazte eta helduentzako hainbat puzgarri jarriko dituzte kiroldegiko igerilekuan. Bi txanda egongo dira: 16:00etatik 18:00etara 10 urtetik gorakoak eta 18:00etatik 20:00etara 10 urtetik beherakoak.

UMEENTZAKO IPUINAK
Umeentzako ipuin kontaketa egongo da datorren egunean, maiatzak 27. Bibliotekan izango da hitzordua, 18:00etan. Alaitz Muro arituko da ipuin kontalari. Ekimena, hiru urtetik aurrerakoentzako emanaldia izango da. Ez da sarrerarik ordaindu beharko.

ESKERRAK
Herritarren Zerrenda sortzeko eskatzen ziren sinadurak jaso ziren herriko Udaletxean. Horregatik, eta jasotako sinadura kopurua ikusita, eskerrak eman nahi dizkie Eskoriatzako herritar guztiei.

ELKARRIZKETA

MAITE GARCIA/PSIKOLOGOA

“Gurasoek eremu pertsonala zaindu behar dute, dituzten balioez gogoeta egiteko”

Z.V.M.

Maite psikologoa da, familian aditua. Eskoriatzako Guraso Eskolan aritu zen martitzenean, eta familiaren eskubideei buruz mintzatu zen. Aurretik, beste herri batzuetan egon da dakiena irakasten.

Guraso izateak aldaketak dakartza; pertsona bezala garatzen jarrai daiteke.

Bai, baina guraso izateak ez du esan nahi umeen beharrei bakarrik arreta jarri behar zaie eta garapen pertsonala alde batera utzi behar denik. Konpromisoa betetako ardura da guraso izatea. Gurasoek espazio pertsonala zaindu behar dute, euren bizitzaz, familiaz, balioez... gogoeta egiteko.

Lehen, batez ere, emakumeek egiten zioten uko beraien bizimoduari. Eta orain?

Oraindik emakumea da familian zigortuena. Lan merkatuan


sartuta egon arren eta lanarekiko ardura berriak hartu arren, ez ditu alde batera uzten aurretik zituenak: etxearen zaintza, haurrak... Rolen banaketan hutsunea nabaritzen da oraindik. Garrantzitsua da bizimodu orekatuak bilatzea, ardura osoa bakarrak ez izateko. Psikologikoki, emakumeak bere eskubideak defendatu behar ditu, eta bikotekideak hari entzun eta hura ulertzeko konpromisoa hartu behar du, bien garapena posible izateko.

Geroz eta ohikoagoak dira guraso bakarreko familiak.

Konplexuagoa da. Pertsona bakarrak du bai alderdi psikologikoaren eta baita eguneroko betebeharren karga ere. Hala ere, bere inguruan eskaintzen diren laguntzak bilatu, eta horietaz baliatu behar du, garapen pertsonala ahalbidetzeko.

Ama asko errudun sentitzen dira lanera itzultzean.

Psikologikoki sentsazio hori izanda ere, umearen oinarriko beharrak aseta daude.



Z.V.M.



Rafa Ruedaren doinuek entzuleak harritu zituzten

Egubakoitzean aritu zen Rafa Rueda Eskoriatzako Gaztetxean. Hara gerturatutako asko harrিতa geratu ziren. Izan ere, orain arte PiLT taldean abeslari lanetan aritutakoak estilo aldaketa nabarmena eman du. Pop-rock doinuek lantzen ditu bere azken diskoan. Kea du izena, eta entzun dutenek, britainiar kutsua duela diote. Lehen baino doinu lasaigoak izan arren, herria eskainitako kontzertura gerturatutakoak oso gustura geratu ziren.

LABUR

Abian da aurtengo San Pedro jaietako kartel lehiaketa



Aurtengo San Pedro jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udalak. Edonork har dezake parte lehiaketan, eta teknika librea da. Hala, ekainaren 4a izango da kartelak aurkezteko azken eguna.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du, eta bere lana Udalaren esku geratuko da. Parte-hartzaileek derrigor jarri beharko dute *2004ko San Pedro Jaiak, Eskoriatza* testua. Saritu gabeko lanekin erakusketa egingo dute.

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastafadri suzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



'Sorginek' mahaia janariz bete eta giro bikaina sortu zuten Toki Ederren

Z.V.M.

Patata-tortillak, piperrak, antxoak, postrea... Inor ez zen goseak geratu martitzen iluntzean Toki Eder elkartean. Herriko emakume taldeko hainbat kide bildu ziren. Helburua zen, elkarrekin afaltzeaz gain, Leonen atera zituzten argazkiak ikustea.

Martitzenean, Gatzagako Toki Eder elkartean emakume koadri-la ederra elkartu zen. Sorginak taldeko emakumeak ziren guztiak eta afari-merienda bat egiteko asmoz elkartu ziren. Adin askotariko lagunak mahaia bueltan batu ziren. Sabela betetzeko, lehenengo janaria prestatu behar. Elkarrekin batzuetan emakumeak ezin dira sukaldara sartu, baina Toki Eder ez da horren adibide, bi generoetakoek dute eta jakiak prestatzeko aukera. Bost bat emakume aritu ziren mahaia beteko zuten jakiak prestatzen: entsalada, antxoak, piperrak, hiru postre mota... Mahaian ez zen tokirik geratzen ia.

GIRO BIKAINA AFARIAN

Adin askotariko hogeit hamar emakume mahaia bueltan. Duela pare



Leonen bizitakoak gainerako lagunei kontatu, barre egin eta jaki goxoez gozatu; afari-merienda aparta.

bat aste horietariko batzuk Leon aldean izan ziren, eta argazkiak ikusi eta bidaiatzeko hitz egiteko bildu ziren batez ere. Baina argi utzi zuten datorren urtean ere beste

irteera bat egin gura dutela, eta, hala, batzuek Italia aldera joatea proposatu zuten. Taldeko lagun batzuk gaixorik zeuden —agian Leonera egindako bidaiar-

rengatik izango zen— eta ez zuten afarira gerturatzeko aukerarik izan. Hala ere, haien lagunek gogoan izan zituzten martitzen iluntzean.

LABUR

Hauteskunde mahaietako kideak aukeratu dituzte

Datorren ekainaren 13an egingo diren Europako Hauteskundeetarako, herrian jarriko dituzten mahaietan egongo diren kideak aukeratu zituzten martitzenean, maiatzak 18. Haur Eskolan jarriko dute bozketan mahaia. Udal ordezkariak egindako bozketan, bederatzi gatzagar aukeratuak izan ziren. Horietariko hiru egongo dira titular moduan ekainaren 13an Gatzagan, eta gainerakoak ordezkariak izango dira, titular bakoitzeko bina.

Errepideko lurberdinketak egiteko dirua

Foru Aldundiak hainbat herritan lan desberdinak egiteko dirua emango du —kultura, errepide, egoitzetarako— eta Gatzagari ere egokitu zaio. 600.000 euro bideratuko ditu Foru Aldundiak GI-627 errepideko lurberdinketa lanak egiteko. Arlabango bihurtzeko hobetzeko izango omen da dirua. Guztira, 140 milioi euro banatuko dira Gipuzkoan.

ERRETRATUZAHARRA

Jaunartze eguna familian ospatzen zen

Gatzagan ateratako argazkia da honakoa. Garro jauregiaren aurrealdean egin zuten, eta bertan ikusten den leihoa gaur egun Toki Eder elkartearena da. Duela 50 urte baino gehiago egin zuten, eta orduko jaunartzeak nolakoak ziren islatzen du.

Gaur egun baino gazteagoak izaten ziren eguneko protagonistak, zazpi bat urterekin egiten baitzen jaunartzea. Baina jende gehiagok egiten zuela ezin ahaztu, ia %100ek. Alde batetik, normalizat ematen zen lehen jaunartzea egitea; bestetik, familia bakoitzean ume ugari egoten zen, eta askotan, binaka edo hirunaka egiten zituzten anai-arrebek ospakizuna. Gaur egun, aldiz, geroz eta jende gutxiagok egiten du; gurasoek erabakitzen dute beraien umeak katekesira eramatea edo ez, eta gainera, erlijioarekiko geroz eta interes txikiagoa du jendeak.

Lehen, jaunartzea egin arte egiten zen katekesia, eta hor amaitzen zen. Orain, gura duenak erlijio kontu gehiago ikasteko aukera izaten du.



Argazkiko egunean, zazpi gaztetxo elkartu ziren Gatzagan On Domingo Bergareche apaizarengandik lehen jaunartzea hartzera. Bere ezkerretara dagoena Arrikruz baserriko Petra da eta bere aurrean alaba, Elena. Apaizaren eskumako bigarren emakumea Vicenta Izurrategi, Laketegi baserri-

koa, Asun alabarekin. Aldamenean, Maria Lejardi eta Mari Karmen alaba; azkenik, Estefania Beitia eta haren semea ageri dira.

Garai haietan jasotzen ziren opariak arrosarioak, meza-liburu txikiak eta estampa tankerako oroigarriak izaten ziren normalean. Ez dute

gaur egungoen antzik; orain, geroz eta opari garestiagoak eta harrigarriagoak jasotzen dituzte, ezkontza txiki bat balitz bezala. Gizarte materialista eta sekularraren ondorioa ote?

Informazioa: Sorginak Emakume Taldea

IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia

•

Kroasantegia

•

Gertatutako janariak



Mitarte 1 • ARETXABALETA • Tel. 943 77 03 08

SAIO BEREZIA GOIENAN HERRIZ HERRI Debagoiena hizpide

Martitzenean, abenduaren 25ean,
20:30ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:

ARKA UZ
ARRASATE-ARETXABALETA





ILUNTZEAN

Jose Maria Setien solaskide



Ikustekoa!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz

Eguenean, maiatzaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki